

BERRIGARA

78. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, urriak 2

**BERGARAKO
ESKOLETAKO
DATUAK
AZTERGAI**




**MIKEL
DIEZ,
ETB-KO
GANBARAN
BAI... SAIOKO
PANPINEN
EGILEAREKIN,
BERRIKETAN**



KIROLAK

**AMAIA
ARANTZABAL
HILABETE OSOA
EGON BEHARKO
DA
ZARAGOZAKO
HOSPITALEAN**



**Basurdea, baserri
inguruetan**

**Burberrys
Yuste
Unicen
Miguel Ibars
Lider
Exigency
Punto Blanco
Peyton**

Gizonezkoentzako jantziak

egizabal

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

**CAMPER
Panama Jack
Runner
Pons Q.
Ferrerias
Paco Herrero
George's**

3. ADINEKOEI BIDERATUTAKO KANPAINA

U R R I A N



- ✓ *Begien dohaineko errebisioak.*
- ✓ *Betaurreko konpletoak, urrun eta hurbilerakoak, 6.950 pezeta.*
- ✓ *Lente bifokaldun betaurrekoak, 9.950 pezeta.*


MULTIOPTICAS

J. Larrañaga
OPTIKA

Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
Plaza J.M. Barandiaran - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA

MULTIOPTICAS taldeko bakarrak
DEBA eskualde eta GOIHERRIrako

Levi'sek baimendutako denda



CRISTINA

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04 BERGARA

Cristinan era guztietako moda bakeroa!

Levi's • Caroché • Bonaventure

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritz

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Miren Josu Arrazola

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Miren Josu Arrazola eta Eudurne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Iñaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M.

Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika

Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,

I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.

Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi

Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol

Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

AUTOGIDARIAK

Kotxe gidari bergararrak albiste iturri ditugu azken egunotan.

Batetik Pablo Irizarrek irabazi egin zuen igandean *Montmelon* jokatuako 16 balbuletako *Clio Kopan* eta sailkapen orokorrean 2. postuan aurkitzen da, amaitzeko bi proba falta direnean. Bi proba horietan Ignacio Hervas toledarraren aurretik sartu ezker, Pablok txapela eskuratuko luke.

Bestetik, Aitor Zabaletak, igandean hau ere, XXI. *Fitorako* Igoera irabazi eta lider jarraitzen du Espainiako Mendi Txapelketan.



Eta, azkenik, *Montmelon*, Espainiako Turismo Txapelketarako baliogarria zen proban, Luis Perez Salak irabazi eta Iñaki Goiburu 3.a izan zen, sailkapen orokorrean 5.postura pasatuz.

Ondo baino hobeto, jokatu dituzten probatan

ITURRI ONETIK

Gasolindegian astelehenean hasiko dira berrizte lanak

Aste honetan hastekoak baziren ere, datorren astelehenean hasi eta hiruzpalau hilabetetan burutuko dira San Lorentzoko gasolindegia berrizte lanak.

Goitik behera berriztuko da, kotxeak garbitzeko makina berria erikiko da eta surtidore automatikoak jarriko dira. Gasolindegia noiz itxiko den zehaztu barik dagoen arren, 10 bat egunetan itxita egongo da.

ESAN DUTE

"Oso zaila da Amaia Arantzabalek errekupeartzeko beharko duen denbora zehaztea. Hospitalean hiruzpalau aste egin, bizimodu normala egiteko sei hilabete eta mendira bueltatzeko bederatzita bat izan daitezke, baina ez dago ezer agintzerik".

RICARDO ARREGI
Zaragozako Hospitale Klinikoko Kongelazio saileko mediku arduraduna
DEIA

"Akordatzen naiz lehen aldiz kotxearen karneta ateratzera joan nintzenean gorri zegoen semaforo bat salto egin nuela. Semaforoa ikusi nuen eta baita frenatu ere, baina metro bat pasatu nintzen. Hurrengo astean, bigarren aldiz, oraindik eta urduriago joan nintzen, patxarana hartzeko ere esan zidaten baina ez nien kasorik egin".

AITOR ZABALETA
Autogidaria
EUSKADI IRRATIA

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK




BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ZINEA



ARMA LETAL III

Ostirala: 10.30.

Igandea: 5, 7.30 eta 10.15.

Larunbata: 5, 7.30 eta 10.30.

Astelehena: 7.30.



ASTERIX Y EL GOLPE DEL MENHIR

Igandea: 11.30 (Matinala).



EL NIÑO QUE GRITO PUTA

Osteguna: 19.30.

▼▼ Mel Gibson eta Danny Gloverrek bikote errentagarria osatzen dute eta, gutxi balira, oraingo hirugarren zati honetan **Joe Pesci** (*Uno de los nuestros*) zaratsua gehitu zaie. Akzioa eta tiroak zihurtaturik daude eta Mel Gibsonek bere ohizko graziak eskeniko dizkigu. Polizi bikote xelebrea benetan!!

▼▼ Asterix eta Obelixen abenturak zinera eramanda. Ohizkoa denez, galiar ausarti hauek milaka arazoei aurre egiteaz gain, erromatarren erasoak jasan beharko dituzte. Baina hor izango dira ahal duten beste laguntzeko *Panoramix*, *Idefix* eta bar luze bat.

▼▼ Haerly Cross gazteak joan den urteko Valladolid-eko Zinemaldian interpretazio onenari zegokion saria eskuratu zuen, **Juan Jose Campanella** arjentinarrak zuzendutako filme honetan egindako lan bikainagatik. Seme batek bere amarekin dituen harreman konfliktiboak azaltzen zaizkigu.

ERAKUSKETAK

▼ **Margo erakusketak:** Jose Ramon Elorzak **Kultura Etxean** eta Mikel Arroiabek **Naikari** tabernan urriaren erdiraldera arte.



Jose Ramon Elorzaren pinturak ikusga Kultura Etxean

FARMAZIAK

▼ **Larunbata 3:**

Mozos.

▼ **Igandea 4:**

Mozos.

▼ **Astelehena 5:**

Camacho.

▼ **Asteartea 6:**

Puy.

▼ **Asteazkena 7:**

Guallar.

▼ **Osteguna 8:**

Mozos.

▼ **Ostirala 9:**


Camacho.

OGIA

▼ **Igandea 27:**Mizpildi.

Euskalduna Taberna

OSINTXU



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

JAIALDIA

▼ **Rock kontzertua:** Patagonia, Balerdi Balerdi, Pottoka eta Ehun kilo, larunbatean 22.00etan Arrasateko Monterronen. Sarrera 300 pezeta.

DEIAK

▼ **Argazki Rallyea** jokatu da igande goizean, Bergarako kale eta auzoetan zehar. Izen-ematea goizeko 8etati 8.30etara Pol-Pol tabernan. Antolatzaile Pol-Pol Argazki taldea.



Zubietako etxeak Deba ibaira begira.

▼ **Bianan egingo den Nafarroa Oinez** festan lagundu nahi duten kuadrilei dei egiten die Aranzadi Ikastolak. **Urriaren 11an** ospatuko da eta **taberna** eta horrelakoetan lan egiteko laguntza behar da. Interesatuok dei ezazue 76 26 76 telefonora.

▼ **Mendi irteera:** Gorla Alpino eta Pol-Pol Mendizale taldeek dei egiten dute **hilaren 18an** Valderejo parkera (Araba) egun guztirako egingo den irteeran parte hartzera.

Irteera goizeko 7etan Plazan eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoetan.

KIROLAK

▼ Futbola:

• **Bergara - Eskoriatza** (Preferente maila). Larunbatean arratsaldeko 16.30etan Agorrosinen.

• **Bergara - Miren Bihotza** (Lehen mailako jubenilak). Larunbatean arratsaldeko 18.15etan Ipintzan.

• **Bergara - Arrasate** (2. mailako jubenilak). Larunbatean eguerdiko 12.30etan Ipintzan.

• **Bergara - Aretxabaleta** (Lehen mailako Infantilak). Larunbatean, goizeko 11.00etan Ipintzan.

• **Bergara - Aretxabaleta** (2. mailako Infantilak). Larunbatean, goizeko 9.30etan Ipintzan.

▼ Pelota:

• **Bergara - Arrasate** (jubenilak eta seniorrak). Ostiralean gaueko 20.00etan Herriko Pelotalekuan.

▼ Futbito:

• **Labegarrietako Futbito Txapelketako** bigarren ihardunaldia jokatu da larunbat eta igandean kiroldegian.

AUKERAN



▼▼ **Aittu sukaldea!** lana antzetzuko du **Trapu Zaharra** antzerki talde donostiarrek igandean arratsaldeko 7etan **Zabalotegiko Dorrepeko aretoan**. Antzezleen artean, aipamen berezia merezi du Ixaso Azkarate aktorea bergararrak.



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Bergararra izatea aski?

Lotsagarria, benetan lotsagarria. Bergarako gazteok, berriz ere, jaietako egitarau eskas baten aurrean aurkitu gara aurten Bergaran ospatu diren jaietan. Egitarau honetan ez dugu gazteontzako, gazteok bultzatutako edota gazteon gustokoa izan daitekeen ekitaldirik aurkitu. Azalduko al digu Vitoriano etab... buru dituen Udaletxeak non izan dugun kale-antzerkia, bazkari, afari edota hamarretako herrikoiak, kuadrilen arteko txapelketak, hitzaldi-etzabaidak, rock-kontzertuak, erakusketa alternatiboak, etab... ikusteko aukera. Esplicituko al diguzue Vitoriano etab... zergatik ez daukazuen inolako interesik Bergarako gazteon gustu, kezka eta errebindikazioen aurrean. Ez al da izango Udaletxetik gaur bizi garen gizarte kapitalista honetan hainbeste aldarrikatzen diren eta zuzi hainbeste gustatzen zaizkizuen baloreak bultzatu nahi dituzuela; pasibitatea, delegazionismoa, sumisioa, indibidualismoa, kontsumismoa, etab... hain zuzen ere.

Ondoren, gazteria pasibo bihurtu dadin eta partiduen interesa baino isladatzen ez duten zuen zentzugabeko hauteskunde kan-

painetan, pertsona objektu bihurtu gaitezen. Gazteok, benetako «euskal lehengai» dagoen Txapa irratia, Gaztetxea, BOTA eta honelako mugida alternatiboetan auto-organizatze beldur zarete. Gaztetxea errebindikatu, adierazpen askatasuna zaintzeko duzuen era berezia salatu, cipayoen jokaera errepresibo eta biolentzia salatzen jaialdi bat antolatu, jai-batzorde alternatibo bat eratu eta honelako iniziatibak garatuko dituen eta azken finean dauden hutsuneak bete eta zuek egiten dituzuen gehiegikeriak salatuko dituen bergarar mugida bat oztopatzea da zuen helburua. Guk baietz uste dugu; baina hala ere Bergaran dagoen "euskal lehengai" sinesten dugu eta aurrera jarraituko dugu gazteon kezka, gustu eta errebindikazioak kaleratzen eta ziur gaude zuen laguntzarik gabe eta are gehiago zuen boikotarekin izango bada ere, Bergaran egon daitezkeen mugida alternatiboek aurrera egingo dutela.

Bergarako Jarrai



Bergarako Gida Komertziala

Urte amaierarako proiektu berriak ditugu Berrigarren. Hori-en artean bat Bergarako Agenda. Eta agendaren barruan Bergarako dendari, profesional eta enpresa guztien helbide eta telefonoak eman nahi ditugu behar bezala sailkatuta. Telefono-listineko «Orrialde horiak» deitutako antzeko zerbait izango da, baina Bergararako. Bertan agertzea merke-merke izango da: 1.000 pta. baino ez.

Gure asmoa gainera hemendik aurrera urtero ateratzea izango litzateke eta aurrerantzean kobratu gabe.

Agendak, Gida Komertzialarekin batera, beste hainbat helbide eta telefono ekarriko du: larrialdietarako telefonoak, kultur eta kirol elkarteak, elkarte gastronomikoenak, etab.

Gida honetan agertu nahi duzuen guztiok aukera izan dezazuen, laster izango duzue gure publizistaren bisita. Etzazu galdu aukera eder hau!

Tiira ba!



Josu Okino

Jadanik martxan jarri da 92-93 ikasturtea eta ikastetxe ezberdinetara jo dugu ikasle kopuruak eta ikasketa ereduaren presentzia jakiteko.

Beheko koadroan antzeman daitekenez, euskaraz ikasten dute.

Bergarako ikasle gehienek, nahiz eta Lanbide Heziketan, batez ere, gaztelania den nagusi. Hala ere, bada etorkizunerako datu bat: eskolaurreko ikasle guztiak euskaraz ikasten ari dira Bergaran.



% 64ak euskara hutsez ikasiko du aurten Bergaran

Lehen zikloko ia ikasle guztiek euskara hutsez ikasiko dute

| ESKOLAK MAILAK | ARANZADI IKASTOLA | | | | MARIAREN LAGUNDIA | | | | SAN MARTIN IKASTETXEA | | | | BATXILERGO INSTITUTUA | | | | LANBIDE HEZIKETA | | | |
|---|----------------------|---|---|-----|----------------------|-----|-----|-----|--------------------------|----|-----|---|--------------------------|----|----|-----|---------------------|-----|----|-----|
| | Ikasleak | A | B | D | Ikasleak | A | B | D | Ikasleak | A | B | D | Ikasleak | A | B | D | Ikasleak | A | B | D |
| AURRESKOLA (3 urtekoak bakarrik) | 66 | - | - | 66 | 41 | - | - | 41 | 23 | - | 23 | - | | | | | | | | |
| OHO (EGB) | 973 | - | - | 973 | 491 | - | 250 | 241 | 255 | 12 | 243 | - | | | | | | | | |
| BBB (BUP) BTI - GTB* | 31 | - | - | 31 | | | | | | | | | 371 | 67 | 31 | 273 | 76 | - | - | 76* |
| UBI (COU) | | | | | | | | | | | | | 147 | 43 | - | 104 | | | | |
| REM | | | | | 37 | - | - | 37 | | | | | | | | | 277 | 73 | 45 | 159 |
| F.P. 2 | | | | | 100 | 100 | - | - | | | | | | | | | 343 | 249 | - | 94 |

A eredia: Gaztelera hutsez; B eredia: Euskaraz eta Gaztelera; D eredia: Euskara hutsez.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

TOKI-EDER
Taberna

**Pintxoak eta
eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

□ **Zuzenketa**

Joan den astean Udal Kirol Zerbitzuko publizitate orrian 3. adinakoen gimnasia iharduerak arratsaldez izango zirela jartzen bazuen, klaseak goizeko 10etatik 11etara izango dira.

□ **Literatura**

JARDUN Elkarrekin idaztea atsegin edota bere idazkera hobetu nahi dutenentzat Literatura Tailerra antolatuta du urritik martxora bitarteko larunbatetan (bi ordu t'erdiz). Mikel Hernandez Abaitua idazle ezaguna izango da irakaslea eta matrikulak 4.000 pta. balioko du. Izena emateko epea urriaren 9an amaitzen da.

□ **BOTA**

BOTA talde antimilitaristak asteazkenero arratsaldeko 7 t'erdietan Zabalotegi Dorrepeko aretoan egingo dituen bileretan parte hartzeko dei egiten du..



Argazki rallya

Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta, igandean, urriak 4, Argazki Rallyaren edizio berri bat jokatu da Bergaran. Ohizkoa denez, nahi duten argazkizale guztiak parte hartu ahal izango dute eta gaiak izena emateko orduan jakin araziko zaizkie partaideei. Izena emateak 1.000 pta. balioko du eta egun berean, goizeko 8.30etatik 9.30etara egin beharko da Pol-Pol Mendizale Taldearen lokaletan.

Antolatzaileek banatu dituzte erabili beharreko roiloak (35 mm.ko diapositibak) eta arratsaldeko

ordubaterdian bueltatuko dira Pol-Polen. Argazkilariek urriaren 13an 7etatik 9etara jasoko dituzte errebelatutako karreteak Kultur Etxeko argazki laborategian. Gai bakoitzeko diapositiba bana aukeratu ondoren, urriaren 19an antolatzaileei eskuratu eta epaimahaiaren erabakia urriaren 24an arratsaldeko 6etan emango da jakitera eta lehen hirurek eta lehen herritarrak trofeo bana jasoko dute. Azkenik, urriaren 29an, arratsaldeko 7.30etan proiektzioa eta sari banaketa egingo da Pol-Polen.

□ **Barkamenak**

Udaleko Kultura Zerbitzuak San Martinetako danborradan megafonia instalakuntzaren eragozpenengatik barkamenak eskatu nahi dizkie kaltetuei, abisatu gabe egin baitzen instalakuntza.

□ **Udal lanpostuak**

Bergarako Udalak hainbat lanpostu betetzeko deialdia egin du: pertsonaleko eta kintetako administraria, obretako lantalderako peoia, uretako lantalderako peoia, itzultzaile-trebatzailea, Hirigintza Departamenturako administraria, peritu agronomoa eta elektrizista lanpostuak. Instantziak aurkezteko epea urriaren 6an amaitzen da.

□ **Dantza**

Aranzadi Ikastolako Dantza Taldeak atera nahi duen 6 urtetik 12 urtera bitarteko taldea osatzeko interesa dutenek urria 9a baino lehen Ikastolako lokalean eman dezakete izena.

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g Tfnoa 76 05 01

**Jubilatu en
Taberna**

MENUA 750 pezeta

AFARIAK


Kuadrilentzako aproposak

Prezio onean

KAZUELATXOAK

= 76 62 71

ANTZUOLA



Lanbide Hastapena


Deba Garaiko Mankomunitateak 1.993ko urtarrietik abendura bitartean Lanbide Hastapeneko ikastaroak jarriko ditu martxan 16 edota 17 urteko langabetuentzat. Egitarau honek eskola utzi edota jarraitzerik izan ez duten gazteei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko aukera eskeintzen die. Heziketa osoa da eta gazteei, beren buruarekiko estimazioa indartuz, gizarteratzeko eta laneratzeko prestatzen zaie.

Gazteak makinaria eta material ezberdinen erabileran trebatzea litzateke

ikastaro hauen helburu nagusia, lan merkatuan sartzeko orduan inolako arazorik izan ez dezaten. Horrela, gazteei, dituzten gaitasunak garatzen laguntzen zaie, aldi berean, giza-harremenez eta astialdiaz gozatzen dutelarik. Bi espezialitate aukera eskeintzen dira; lehendabizikoan elektrizitatea, haroztegia eta mekanika lantzeko aukera dago eta bigarrenean, berriz, sukaldaritza, ofimatika eta artisaugintza. Informazio gehiago Udaleko Enplegu dinamizatzailearen bulegoan jaso daiteke.

Txinpartak

- ✓ Bergarako IMIk d-Base IV informatika ikastaroa iragarri du azarorako. Lehengo zatia azaroaren 2an hasiko da eta 12.000 pta. balio izango du.
- ✓ II. Gabonetako Eskaparate Lehiaketa egingo da Gabonetan. Kultura Zerbitzuak laister informazio zehatza bidaliko die denda eta komertzio ezberdinei.
- ✓ 3.173 zenbakiak irabazi du Angiozarko jaietako zozketan Parisera bi pertsonentzako bidaia.
- ✓ Irailean Bergarako Institututik selektibitate azterketa egin zuten 20 ikasleetatik 19k gainditu dute azterketa.
- ✓ Nafarroa oinezera joateko autobusak antolatu dituzte Aranzadi Ikastolak eta Udal Euskara Zerbitzuak. Izena emateko epea ostegunean, urriak 8, amaituko da.
- ✓ Jubilatuen Egoitzak Jaizkibelera mendi irteera iragarri du urriaren 8rako. Bazkaria Irungo Egoitzan izango da eta Hondarribira bisitatxo bat ere egingo da. Bidaiaren prezioa 1.30 pta.koa da.
- ✓ Pol-Pol Argazki Taldeko Agustin Gurrutxagak Azpeitiako Argazki Saria irabazi du eta bere taldekideak diren Benito Cantero eta Juan Antonio Unzurrunzagak finalera iristea lortu zuten.



PAPERDENDA

Marcó

Bidekurutzeta, 44
Tel. 943 / 76 05 54
Fax. 943 / 76 05 54
20570 BERGARA

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

**Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejlak**

Martokua 32, tfnoa: 764594

**SURPE
Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

INFERNUKUA

Bazkarizk ematen ditugu
San Martinak arte. **Taberna**
Enkarguak hartzen ditugu

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



Kanpazar aldera aurkitu zutela. Gainak, mandobide zaharak ("eutsi goiari" esaten zen), artaldeak, dolmenak..., askotan batera egon edo joan izan dira. Ez dakigu ermitaren egiteko arrazoi nagusia zein izan zen, eta lehengo ohikunde zaharrekin zer ikusirik baitote zeukan, baina inoiz horrelakoak ere gertatzen ziren. Hau da, dolmenei eta horrelakoei superstizioko begirunea eduki zaie batzuetan eta orduan trikuarrien inguruan zeuden tokiak ere kristautzen saiatu ziren.

Horrela idatzi zuen Barandiaran dar On Joxemielek (G.B.), Pol-Pol inguruetan baserritik 500 metro-tara dagoen izen bereko beste toki bat ikusi ondoren. Pagolako horretan konjurua egiten omen zen urtero, zurezko gurutzetxo ipiniaz. San Blas auzoan ekaitza dagoenean, "oraintxe ez da giro onik izango Pagobedeinkatun" esaten omen da.

Imanol Sorondo

San Bartolome

Mandobide baten ondoan

San Bartolometaz daukagun urtea oraintsu samarrekoa da, joan den gizaldikoa; hala ere ermita berak adierazten du zaharragoa dela. Bere neurriak 7 eta 6,5ekoak dira, eta aldarea horretaz gainera. Zaharberritutako

San bartolomeren irudia dauka.

Elgetatik kanpazarrera dihoan bide ondoan dago; jakina da oraingo errepede asko lehengoan gainetik eginak daudela. Ermitaren ondoan "mando-bide" izeneko toki bat dago eta, di-

tenez, handik pasatzen omen zen mandobide zahar bat Kanpazar eta Leinzko bailadaren mendietako gainetara.

Oraindik ez dira urte asko Aranzadi Elkarteko talde batek megalitikoko hiru tumulo Goronsarri eta

P. MANSO
Optika
OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

GOIERRI
Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

ORTZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Xabier Arzallus, Juan Mari Bandres, Jon Idigoras, Carlos Garaikoetxea, Txiki Benegas eta Jose Antonio Ardanzen panpinak izango dira 15 astez Ganbaran bai saioko izarrak. Arte Ederretan lizentziaturik dauden Mikel eta Estefari uztailean aurkeztu zitzaizkien lan interesgarri honetan murgiltzeko aukera. «Charlevillen (Frantzia) lanean geniharduela, Taun-Taunekoekin harremanetan geunden eta lan honetan hasteko proposamena egin ziguten Pausoka produktoratik. Gero, Taun-Taunekoak Hego Amerikara joan dira eta eurak proiektutik kanpo geratu ziren», dio Mikelek.

Orainarte antzerki munduan lanean ibili badira ere, telebistarako lehen esperientzia honetan panpinak egiteaz bakarrik arduratu dira. Estefak kontatzen duenez, «Produktorako karikaturista baten lanetatik abiatuz, guk lehenbizi buztinean landu ditugu pertsonaia bakoitzaren buruak eta hortik igeltsu moldeak egin ditugu eta preparatu kimiko batekin (latex espuma) bete ondoren, labean sartu eta sikatzen utzi. Ondoren apainketa lana dator: panpinak margotu, jantzi, ileak jarri... Mekanismoak, berriz, Mikelen aitak egin dizkigu eta bere lana ere azpimarratu nahi genuke».

Zailtasunari dagokionez



Mikel Diezekin berriketan:

"Panpinek etorkizun haundia daukate telebistan"

Asteartean ETB-1ean emititzen hasi zen Ganbaran bai saioko Euskadi latexeko panpinak Mikel Díez bergararrak eta Estefania Errok landutakoak dira. Hiru hilabeteko lan neketsuaren ondoren erronka ez da «txantxetako»: Euskal Herriko 6 politiko ezagunetxuenen eskutik jendearen irribarrea sortaraztea.

izan dira bai lan gehiago eman duten panpinak; «Ardanza izan da gehien

kostatu zaiguna, behar bada berarekin hasi ginelako. Azkenerako utzi eta gai-

nontzekoak lantzeari ekin genion. Benegasek ere nahiko lan eman digu... Eta errezena? ba igual Bandres, ez dakit» azaltzen du Mikelek.

Spittin image britaniarren formula arrakastatsua jarraituz, era honetako programek gure gizartearen ikuspegi barregarria ateratzea dute helburu. «Alde hortatik gidoiak nahiko katxondoak dira», dio Mikelek, «eta erronka nahiko fuertea da, azken batean Euskal Herrian jendea ez dagoelako ohituta honelako programak ikusten eta oraindik gutxiago gure agintariaren kontura barre giten».

Mikel eta Estefaren eritziz esperientzia hau guztiz positiboa izan da. Asko ikasi omen dute: «Duda barik gauza asko ikusi eta ikasten dituzu. Telebista ez genuen ezagutzen eta posibilitate asko dituen medioa da. Oso interesgarria da baina hala ere antzerkian, publikoarekiko harremana zuzenagoa da. Baina panpinek etorkizun haundia daukate telebistan eta gustatuko litzaiguke bi medioak tartekatzea, telebista panpinen ikuspegia aberasteko oso baliotsua izan daiteke eta».

Badakizue, panpinak ezagutzen ez dituzuenok galdu ezineko zita duzue orain Ganbaran bai saioarekin. Eta, bide batez, politikoekin behingoz barre giteko aukera...

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



ETXAGI
Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak

Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Basurdea baserri inguruetan

Azkenaldi honetan behin eta berriro entzuten ari gara basurdeak ugaltu egin direla eta kalte haundiak egin dituztela hainbat baserrian. Hala ere, Bergarako Udalean orain arte kexa bakarra jaso da, Basalgo-Goimendiko «Intxuzabal» baserrikoa bertan artasail bat hondatu dutela eta. Edozein modutan, eta aipatutako hori kasu bakarra izan ez den arren, zenbaiten eritziz gaia gehiegi puztu da. Guk, hemen, bildu ahal izan ditugun datu eta eritziak plazaratzen dizkizuegu.

Hil honen 7a izan zen *Intxuzabal* baserrian bizi diren Osoro anaiak sorora lanera abiatu zirenean izugarrizko txikizioa ikusi zuten lehenengo eguna. Bertan ereinda zuten artoa janda eta txikituta zegoen erabat. Inguruak aztertu ondoren basurdeek eragin-

dako kaltea izan behar zuela jakin zuten, edonon bait zeuden animalia horien aztarnak. Hurrengo egunean lur-sail handiagoa zegoen hondatuta, eta horrela hiruzpalau egunetan zehar.

Azkenean udaletxera jo zuten laguntza eske. Bergarako udaltzainak hil ho-

nen 10ean joan ziren *Intxuzabal* baserrira gertatutakoaren berri zehatza jasotzera. Hauek egindako informeak dioenez, 50 metro luze eta 20 metro zabal duen lursail batetan zeuden arto, baba eta erre-molatxa landare gehienak lurrean apurtuta, zapalduta

eta janda zeuden, eta ia ezer ere ez zen aprobetxatzeko modukoa.

Udaletik Diputaziora bidali da kasu honen inguruko dokumentazio guztia eta martxan da, dagoeneko, laguntzaren bat jasotzeko bete behar den prozesua.

Intxuzabal baserrikoa izan da Bergaran azaldu den salaketa bakarra, baina *Berrigarak* jakin duenez, beste zenbait lekutan ere egin dituzte kalteak. Ueberan, *Artiz* baserrian, sarritan sartu zaizkie artasailean eta uxatzeko gaeuz irratia jarri beharrean izan dira. *Agerre Goikoan* ere egin omen dute kalterik eta baita Elorregi auzoan ere, *Arizti* eta *Elkoro-Iribe* baserrietan.

Bergaratik kanpo

Balentin Gabilondo ENHEko lehendakariak adierazi digunez, Gipuzkoa mailan, sindikatuan kexa dextente jaso dute eta gaia aztertzen ari dira Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara proposamenen bat eramateko asmoz. Kexa horien artean, Arrasateko Udala auzoko Juntak bidalitako idatzia dago. Bertan, adierazten denez, auzo hartako hainbat baserrian kalte haundiak egin dituzte basurdeek eta arazoari interbiderik eman ezinik dabil-tza nahiz eta itxitura elektrikoak, txakurrak, etab. jarri dituzten.

Edozein modutan, zonako guardak adierazi

CAMACHO

**DROGERIA
USAINDEGIA**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A

digunez, Arrasaten salaketa bakarria izan da, artoa jan eta zapaldu dutelako, eta beste bat Aretxabaletan, belarra mozteko prest zegoen zelai batetan basurdeek uxarrean egin dutelako. Bestalde, basozainaren esanetan, kalteak ez dira handiak izan.

Kaltetuentzat diru-laguntzak

Horrelako kalteren bat jasaten duen baserrietarrak Diputazioko Nekazaritza sailera jo dezake laguntza eske.

Kasuaren inguruko informazio osoa, argazki eta guzti bidali behar da, kalteen balorazioarekin batera, Diputazioko Nekazaritza Sailera. Departamentu honek ez du laguntzarik aurrikusten kasu konkretu honetarako, baina eskakizun guztiak aztertu egiten dira eta egokitzen jotzen bada, kalteua izan den baserrietarrari dirulaguntza ematen zaio.



Intxuzabaleko arto-zorua

Intxuzabaleko Tomas Osororekin: "Txarrena, lana alperrik galtzea"



Tomas Osoro «Intxuzabal» baserrikoa da ba-

surdeek bere lur-sailean eragindako kalteak direla eta, Bergarako udaletxean parte eman duena.

Berak ikusia zuen basurdea bere lurren ingurutan. "Aurten bi aldiz ikusi dut, lehenengo apirilean eta gero uztaillean. Beste batek ere ikusi zuen eta esan zidan hori hil egin behar zela, baina esan nion, gero 20.000 duro ordaindu beharko zuela". Azkenean bedaz kanpo basurdea hiltzeagatik ordaindu beharreko isunak bertan behera

utzi zituen asmo horiek. "Orain ez ditu inork hiltzen eta, horregatik daude hainbeste basurde".

Tomas Osorok ez daki zenbateko kaltea izan duen dirutan. "Ez dakit zenbat diru galdu dudan honekin, baina arto aletan 300 bat kilo izango dira".

Berarentzako, dena den, kalterik handiena, egindako lanak ez duela ezertarako balio izan: "Ni ez naiz gaztea eta gerria eta bizkarra minduta dauzkat, berriro ereiten hasteko".

Faunari epaia

Udako azken asteekin bat etorriaz, sekulako algarada sortu da aurtengoan ere, basurdeak direla eta. Algarada interesatu horri zenbait muga jartzea beharrezkoa da, basurdearen egoerari buruzko datuetan oinarriturik:

- Azken hamarkadatan Europa osoan basurdeak jasan duen gorakada ez da oso nabaria izan Gipuzkoan. Gaur egun probintzia osoan azaldu arren, azken ikerketek basurde kopuru eskasak eman dituzte (normalean esaten denaren kontra). Pinadietan lasai eskutatzen da baina ez dauka janaririk. Gainera, ehizaren eragina

inon baino fuertegoa da hemen. Tamainu eta ohituren ondorioz, hala ere, oso animal nabaria da. Gaztainak eta ezkurak erori gabe daudenean edo gutxi daudenean (gure kasua) baserrietara inguratzen da batzuetan, baratzak eta soroak hondatuz. Hemen agertzen da algarada orokorra.

- Indemnizazio egokiei zenbait gestio tekniko ximple bateratuz, kalte horiek erraz murriztu daitezke. Beste lurralde batzutan ikus daiteke nekazaritza eta fauna konpatibleak direla. Lurralde osoa kontsideratuz, kalteak oso urriak dira hemen eta errazagoa da beraz, arazoa konpontzea; borondatea falta da agi-

an.

- Behor eta ahuntzek kalte larriagoak sortzen dituzte mendietako ekosistematan, baina ez da inoiz algaradarik sortzen. Zergatik hauek ez «epaitu»?

Argi dago gure fauna mantentzeko, sineskeria eta algarada interesatuak alde batera uztea komeni zaigula. Jarri ditzagun gauzak bere lekuan eta ez puztu berez hutsa dena.

Iñaki
IRIZAR
(Biologoa)



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99


BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara

URRATS



Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

ZARZUÑO



SAN JUAN BERGARA

ETXE AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

FS oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Zer erizten diozu ordu aldaketari?



Elena Etxabarri
30 urte, pelukera

Neri berdin zait, aurreratu edo atzeratu antzera xamar zait.



Antonio Naranjo
15 urte, ikaslea

Neri bost axola..., hala ere udako ordutegia gustokoagoa dut.



Ana Orgaz
47 urte, etxekoandrea

Ordua aldatzearen kontra nago, ez du zentzurik. Energia aurreratu nahi bada modu egokiagoak daudela uste dut.



Secundino Rodriguez
55 urte, udaltzaina

Nere ustez ez lukete aldatu behar, oztopoak sortzen dituelako. Neguko ordutegia erabili beharko genuke beti



LARRAÑAGA
Autogidarien Eskola

Artekale 22
Tfnoa: 76 16 63
BERGARA



Pelikula eskasak

Tristea da Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren itxiera ekitaldira joan eta berriz ere ezegonkortasun eta krisi giroa sumatu beharra.

Eta egonezina sortzen du izan ere gure mugez gaindiko ekintza baita eta irauten duen bitartean gutariko askok benetan disfrutatzea lortzen baitu. Zinemaldi iluna. Ados. Iluna pelikulen kalitatearen aldetik eta izarren presentzia urriagatik. Antolatzaileen errua? Bai eta ez. Mundu mailan zinegintza unerik larrienetakoa igarotzen ari da, orijinaltasuna falta da eta arriskatzea. Glamour-ra eta izar haundiak behar ziren pelikula pobrez osatutako zinemaldi bat jasotzeko.

Baina, nik kritika latz bat norbaiti egitekotan Maura, Paredes, Serna, etab.ei egin beharko nieke. Badute aipatutako horiek Bacall-engandik zer ikasirik beren jarraitzaileei irrifarretxo bat eskaintzeko eta ez, egin izan duten moduan, purrustadaka hartu.

Eta, azkenik, esan beharko dut, inaugurazioa, urtebetetzea, eta itxialdi-ekitaldia aspergarriak izan baziren ere, Urrezko Maskorra merezi zuen pelikula bakarrak eraman zuela, Adolfo Aristarainen «Un lugar en el mundo» pelikulak. Zorionak!!

Marta Moral



Sarna XXI. mendearen atarian

Pasa den egunean egunkaria irakurtzean harridura eta haserrea azaltzea baino ez nuen izan. Alcalá-Mecón dauden lau euskal preso politiko isolamendu gelan omen daude sarna gaixotasuna hartu dutelako. XXI. mendearen atarian, jadanik, gaixotasun hau desagertuta dago.

Garbitasun neurri minimoak izatea nahikoa da gaixotasuna ekiditzeko, baina badirudi neurri hauek ere gehiegizkoak direla presoek emateko. Honela, presoek esku dago gela garbitzea, baina askotan ezinezko gertatzen zaie, lixiba botila bat ere lortu ezin izanagatik.

Oraingo honetan sarna hartu dute, baina gartzeletan ematen diren osasun baldintza kaxkarrekin, ez litzateke harrizko izango gaixotasun larriagoak ere agertzea.

Presoen eskaerek ez dute aldarrikatzen erosotasuna lortzeko edo ez dakit nolako neurriak, bizi ahal izateko baldintza minimoak izatea baizik. Eta penagarria da gaur egun oraindik egoera honetan bizi diren herriko semeak ikustea.

Ainhoa Lete

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

Bidekurutzeta 6, behea

Tfnoa: 76 57 68

BERGARA

aroa
boutique

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

SURF
Kisak Moda

AISOR

Quick Silver, Rip Curl, Town Country, LIBERTO, O' MILL, TACHEE

Bidekurutzeta 7 ☎ 76 04 10 BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko botelilatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA


Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

□ Sarasua - Amuriza: nor baino nor

Joan den igandean Angiozarren ur depuragailua eta eskola berriaren inauguraketa egin ondoren, eliza atarian herri bazkaria egin zuten 80 bat lagunek San Migel jaiak ospatzeko. Halakoetan gertatzen den



bezala, giro ona eta barre ugari. Han izan ziren, besteak beste, Xabier Amuriza eta Jon Sarasua bertsolariak eta Eguzki musika taldea bazkalostea alaitzeko. Eta bi bertsolariek apustu bitxi bat ere egin zuten Angiozarren independentziaren inguruko solasaldia berotzen hastean; Xabier Amurizak Gipuzkoan, gutxienez, Angiozar baino

biztanle gutxiagoko 13 herri bazirela eta Jon Sarasuak ezetz. Galtzen zuenak musutrukeko bertso saioa eskeini beharko zuela Angiozarren... Jon Sarasuak galdu du apustua, Gipuzkoan 350 biztanle baino gutxiagoko 17 herri zenbatu ditugu eta. Horra hor zerrenda:

Abaltzisketa (281), Aduna (327), Albiztur (312), Alkiza (263), Altzaga, Altzo (327), Arana (147), Baliarrain (97), Beizama (178), Belauntza (306), Elduaien (255), Gainza (125), Larraul (154), Leintz Gatzaga

(231), Mutiloa (190), Orendain (179), Orexa (77) eta Zerain (233). Herriz-herri bertsotan ibiltzen den batentzat barkaezineko hankasartzea...



Apustua galdu duenez, musutrukeko bertso saioa eskeiniko du Jon Sarasuak Xabier Amurizarekin batera, Angiozarren, negualdean.

Amets

Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen



banatzailea

Informazioa: ☎ 78 25.92 / 78 19 50

AMETS Tailerrak

Berezano Auzoa • OÑATI

ALBENIZ ARGAZKIA



□ 103 urte!!

Joan den igandean Jose Telleriarte Bergarako aitona Victoriano Gallastegi alkatea eta Koldo Pereira eta Jabier Gabilondo zinegotzien bisita izan zuen bere 103. urtebetetzearen egunean. Alkatearen eskutik zenbait opari jaso eta jarraian Josek meza entzun zuen Mizpirualde Egoitzako bere lagunekin batera, bildutakoek *Zorionak* abestu ziotelarik amaieran. Aipatu osasun aldetik ondo baino hobeto dagoela Jose eta ahal duenean ere irtetzen dela terrazara hain gustokoa duen eguzkia hartzera...


□ Angiozarretik zerura

Angiozarreko jaiekin jarraituz, igandean herri bazkaria izan bazen ere, astearte gauean jaiak antolatzen ibili direnek ondo merezitako afora egin zuten San Migelel amaiera emateko. Guztira, 40 bat lagun bildu ziren bertan eta aurreko egunetan bezala parranda ez zen makala izan. Aurretik, iaz bezala, San Migelen zeruratzeari ekin zioten eta auskalo non agertuko den angiozararren patroia. Datorren urteko jaietarako bueltatuko dela zihurra da behintzat, eta berau jasotzen duenak 10.000 pta.ko saria eta Angiozar bisitatzeko gonbidapena jasoko du. Hori bai santu eskuzabala!!




Zertan dihardute ba?

AITOR ETXEBERRIA



21 urteko sukaldari bergarar hau Gabonak arte Burdeoseko *Le Chapon Fin* jatetxera joan zaigu praktikak egitera Europako Ekonomia Elkarteko beka bati esker.

AITOR PAYROS



Geologia ikasketak burutu dituen 24 urteko gazte bergarar honek joan den larunbatean Oñatin jokaturako Kirol Eskalada Txapelketa irabazi zuen, 40.000 pezeta eta trofeoa eskuratuz.

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

**IRUBIDE
Taberna**

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

PUXKIN
OINETAKOAK

D. IRALA,
BERGARA Tfna: 76 21 17

Umore giroan

Gu ez gara
itxurian jabe

Arratsalde aretan, "Astelena" pelota-lekuan, "Punteret" eta beste lagun batek, pelotarixei begixa kendu barik, baiñan baitxa be pelota-lekuko korredorien abotsei, pentsau ze-ben "través" ona egiten zebela eta euken diru guztia jokatu ze-ben. Zoritxarrez, dana galdu. Amaitxu zan jokua -bi jokua- eta lotsatuta, lurrera begira, iñori kasurik ein barik, Untzagaruntz jo biarrian, juan dira Isastiruntz -merkiago ibiltzeko asmotan-. Bidian zoiazela, urreratu jakue eskale bat, limosna eske. Eta auxe erantzun zetsan "Punteret"ek:

- Zu, andra, ez pentsau gero gu itxurian jabe garanik!

Txofer zeñek eiñ
biajok

Bazeguan "Punteret" tabernan. Orretan pasau dira gazte talde bat manifestaziñuan kalez-kale, eztakitx zer eskubide eskatzen. Orduan "Punteret"ek:

- Au dok au izatekua! Gu be izan giñuazan naiko buru ariñ, baiñan beintzat biar apur bat eitxen genduan. Onek barriz, ezer egin barik bizitzia nai ju-ek. Eurok auto onakin eta gaiñera, txoferra aldame-nian.

Beste batek orduan esaten detsa: eta ori ez dozu ondo ikusten?

"Punteret"ek:

- Bai, eta txofer zeñek eiñ biajok?

* * *

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Sta. Marinako Animen erretaula

Erretaula nagusia egiten ari zen urte beretsuetan Sta. Marinako Animen Kofradiak izen horren pean erretaula bat buruztea erabaki zuen; uzkontza anonimo bat zeukaten horretarako, baina baldintza bat aurretik jarria, alegia, bigarren erretaulan Sta. Teresaren imajinak agertu behar zuela. Kofradia 1.741eko urtarrilaren 12an bildurrik, eta aipatu erretaula eraiki ahal izateko, bertako partaideek erremusina gehiago eskeintzea (diruz, gariz, intxaurrondoz, eta abarrez) deliberatu zuten; azkenik, Miguel de Irazusta izan zen obra bere gain hartu zuena 6.000 errealetako prezio merkea onartuz kofradiari erremusina egitearren. 1743rako, Irazusta hil zenerako alegia, obra amaituta zegoen.

Orohar hartuta, erretaula

xinplea da batez ere erretaula nagusiarekin konparaturaz gero. Gorpu bakarra erakusten du predela eta atikoaz gain. Erdiko zatia, Animak erreprezentatuz, apaindutako pilastra pare bat eta orden konposatuko eta fuste ildaskatuak dituzten zutabeak hartzen ditu alboetan, guztiak erretaula nagusiaren antzeko apaingarriak erakutsiz; euskarria predelatik nabarmenerazten diren lau mentsula korapilatan aurkitzen du. Atikoan nitxo bat azaltzen da Sta. Teresaren imajina barruan duela, kiribilduraz errematuriko frontoi hautsi batek koroatua; maila honetan le-erro kurbatuak eta apindura joria nagusitzen dira.

M. J. Aranburu
Jesus Gil Masa

MARGA JANTZIAK


San Pedro, 22 Bergara

MODA GUZTIA

92 / 93 UDAZKEN
eta NEGUKO KOLEZIO
BERRIA

BAITA
FESTARAKO
JANTZI EDERRAK ERE

AZKEN MODARA
ETA PREZIO
HOBERENETARA...
MARGAn



ABDON JUARISTI

PINTURA
KLASEAK

☎ 76 47 98 (12.00 - 14.00)

MEKOLALDE TABERNA

Astebukaera
honetan itxita
egongo da

BERGARA ☎ 76 50 18

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



Maria Dolores Erdabide

Maria Dolores Erdabidek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. 10.000 pzta eman diogu berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen zen monoiltoa Fraiskozuri enparantzan dagoela eta Martinez de Iralaren omenez eraiki zela, zuzena zelako.

ZORIONAK!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Txuringo

✓ Menua eta Karta



Jatetxea

✓ Ezkontzak,
jaunartzeak.

✓ Txerrikumeak,
bildotsa eta
baserriko ailaskoak
labean erreta

Osintxuko plaza, ☎ 76 48 63

LILURA

Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.
Bakoitzarena banan-banan zaindu
beharra dago.
Utzi ezazu benetako espezialisten
eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA

Amaia Arantzabalek hilabetea emango du Hospitalean

□ Saskibaloia

Bergara K.E.ko senior gizonaen saskibaloitzaletan 52-37 emaitzarekin irabaziz Beasaini larunbatean Bergaran jokatuako ligako lehen partiduan. Larunbat honetan, hilak 3, Legazpin jokatuko dute. Aipatu bestalde, saskibaloitzaletan laguntzeko txartelak 500 pta.ren truke eros daitezkeela.

□ Futbola

Begarako futbol talde nagusiak hasiera txarra izan du aurtengo eta pasa den astean Zumaiako taldearen aurka 4 eta 0 galdu zuen. Bergararrek larunbatean Eskoriatza taldearen bisita izango dute Agorrosinen. Bestalde, bigarren mailako errejional taldeak garaipen berri bat lortu zuen larunbatean, Danak taldeari 5 eta 1 nagusituz.

Amaia Arantzabal mendizale bergararrak Zaragozan ingresaturik jarraitzen du, joan den irailaren 17an Katmanduko *Cho Oyuko* (8.189 m.) gailurrera igotzean jasandako konjelazioak direla medio. Amaia igande goizean heldu zen Zaragozara eta behala jarri zen bertako Eritexean Ricardo Arregi medikuaren tratamendupean.



Odol zirkulazioa hobetu

Heldu bezain laister operatu egin zuten eta estimulatuak bat jarri zioten aparailu honen deskarga elektrikoaren bidez odol zirkulazioa hobetzeko. Bere aitarekin asteazkenean harremanetan jarriarik, zera adierazi zigun: "*Amaia animatuta eta lortutakoarekin pozik dago. Orain,*

hanketan dituen konjelazioak zenbaterainoko larriak diren ikusi beharra dago". Amaiak *Cho Oyura* heltzea lortu zuen beste emakume euskaldunarekin konpartitzen du logela, Pili Ganuzarekin hain zuzen ere. Azken hau Amaia baino 4 egun beranduago iritsi zen tontorrera eta, dirudienez, eskuko behatza galtzeko arriskua du, ezkontzako

eratzunak zirkulazioa geratu eta dexente gaiztotu bait zion.

Azken informe medikuen arabera, gauzak ondo badoaz, hilabete bat inguru emango dute Zaragozan Amaia zein Pilik.

Guk lerro hauetatik errehabilitazio azkar bat opa diegu eta lehen bait lehen gure artean izatea opa diegu.

Mendiko Bizikleta

Jose Ramon Izagirrek irabazi zuen Iban Altube eta Aitor Goñiren aurretik joan den larunbatean Angiozarren jokatuako Mendi Bizikleta lasterketa. Gazteen kategorian, berriz, Andoni Erdozia heldu zen lehenengo helmugara, 2. Ander Markiegi izan zen eta hirugarren postua Gorka Marzanentzat izan zen. Azkenik, 14 urtetik beherakoen artean, Egoitz Elorza nagusitu zen eta Arkaitz Mendizabal eta Eneko Elorza 2. eta 3. postuan sailkatu ziren. Bestalde, 150 lagun inguru bildu ziren larunbatean Bergara eta inguruko mendateetan jokatuako I.go Mendi Bizikleta irteeran.



LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



Angiozarko Eskolako neskak. 1.962 ingurua.

Legebiltzarrean bertan ere hasi dira, dagoeneko ume-urritasunaz hitzegiten. Argazki hau atera zenean, bistan denez, ez zen halako arazorik. Orduan 40 neskak ziharduten eskolan, gaur neska eta mutil dozena inguruan dabilta.

Erretratoa 1962 aldera ateratakoa da eta bertan agertzen diren umerik nagusitxoena 1958an, orduko eskola berria hasi zirenak dira.

Hona hemen izenak:

Belauniko: Rosa Mari Pagaldai, Ana Salas, Alicia Azula, Kontxi Gallastegi, Maria Pilar Garai, Dolores Delgado, Marisol Retolaza, Maria Carmen Salas, Isabelita Sopelana, Mari Tere Alberdi

Bigarren filan:

Eskola kontran dauden biak: Valentina eta Mila Agirrezabal

Zutik eta jarrita dauden txikiak: Konsuelo Garitano, Mari Tere Otxoa de Angiozar, Mari Angeles Altube, Maria Pilar Retolaza, Beatriz Eguren, Rosalia Garitano, Mari Karmen Beitia, Ana Mari Azula, Itziar Garmendia, Maria Jesus Ugarte, Josefa, Maria Luisa Berriotxoa, Mari Asun Berriotxoa

Azkenengo Filan: Ana Mari Gorrotxategi, Maria Pilar Aranzabal, Maria Eugenia Inza, Mertxe Altube, Maria Ines Otxoa de Angiozar, Lourdes Azula, Ester Elorza, Kontxi Elorza, Irene Eguren, Jesusa Aranzabal, Maria Pilar Pagaldai, Mila Eguren, Josefina Aldai eta Maribi Ugarte.

Estepan Plazaola

Argazkia: Mertxe Altube

Jabier LAZPIUR
HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA

DENA 100

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an



PortuGas

NATURGAS, S.A. enpresaren kolaboratzaile

Gas, berogailu eta
aklimatazio
lanetarako
proiektuak eta
instalazioak

ALEX GARDOKI

☎ 76 27 17

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Sarriko inguruan pisua
hartu nahi nuke eta jende
billa nabil. ☎ 76 32 85.
(Ivan).

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Pisua salgai Koldo Elei-
zalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Amaran (Donostia) etxe
bat betetzeko bi neska
nahi ditugu. ☎ 76 34 22.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan:
bi gela, saloia, sukaldea,
bainua eta trasteroa.
☎ 762402 / 94-658 24 68.

Zaragozan pisu bat osa-
tzeko neska euskaldun
bat behar dugu.
☎ 75 19 98 / 79 28 71.

Etxe bat alokatzen da,
San Antonion.
☎ 75 21 39.

Pertsona bat behar da
Donostian (Antiguon) pi-
sua betetzeko. ☎ 76 43 30.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Deuston pisua betetzeko
jendea nahi dugu.
☎ 76 34 92 (goizez).

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

SALDU-EROSI

1.992-93 ikasterterako,
egunero Donostiarra
joan-etorria egiteko, au-
tobusa bete nahi dugu.
Interesatuta bazaude
deitu 77 00 65era.

2. eskuko paseozko bi-
zikleta bat erosi nahi nu-
ke. ☎ 76 32 70. (Idoia).

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gaeuz).

Matrimonio logela bate-
ko altzarlak salgai.
☎ 76 44 27 (gaeuz).

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2
urte, berri-berria. 55.000
Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Elektragailuak (garbigai-
lua, hozgailua...) erosiko
nituzke ☎ 76 17 85.

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

Berogailu japoniar bat
salgai. ☎ 76 50 12.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
uez).

Petrolioizko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

LANA

Arratsaldetan galxoak
eta edadetuak zaintzen
lan egingo nuke.
☎ 76 46 90.

Emakumezko batek hau-
rrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko
ilustrazioak, erretratuak,
irudiak etab. marraztuko
lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta
umeak zainduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska bat behar da
etxeko lanak egiteko.
☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin eta umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Hildakoak

- Julian Muruamendiaraz Arregi*
Irailak 26, 77 urte
- Eugenio Arriaran Lazpiur*
Irailak 27, 77 urte
- Xabier Laskurain Zabala*
Irailak 30, 52 urte
- Asuncion Iñarra Lazpiur*
Urriak 1, 76 urte

Jaiotakoak

- Irati Fernandez Albisua*
Irailak 21
- Ana Itxaro Madinabeitia Olabarria*
Irailak 21
- Jone Albeniz Pedrejon*
Irailak 29

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA

**GIDARI
GUZTIENTZAT
APROPOSA**

ZATUZ eta IKUSI!!!

Zaldispe auzoa, 2 (Ospitalaren ondoan)
☎ 79 97 12 ARRASATE



PEUGEOT · TALBOT

URKULU AUTOAK

- ✓ Geure baliabide guztiak zeure esku
- ✓ Direkzio-alienagailua
- ✓ Frenometroa
- ✓ Suspentsio bankua
- ✓ Aire egokitua kargatu eta konprobatu egiten dugu
- ✓ Gizatalde bikaina zure esanetara

**Ibilgailuen
Azterketa Teknikoa
DOAN**

**DENA ZURE
ZRBITZURA!!**